AZOKA SOLIDARIOA

Jarribestebat!

HITZETATIK EKINTZETARA-KLIK 30

ZER DA?

"Jarri beste bat!" Azoka solidarioa, Tolosan egingo den elikagai freskoen azoka solidarioa da.
Ekainaren 10ean egingo da Triangulo plazan.
Ekimen hau AGENDA30 inguruan antolatua da eta konkretuki 2.CHJ helburuaren barne dator.
Azoka solidario honetan elikagai freskoak bilduko dira, ondoren egoera zaurgarrian dauden familiei banatzeko.
Tolosan bizi diren 220 familiak zailtasunak dituzte elikadura osasungarria eta orekatua lortzeko.
190 adingabe malnutrizio arriskuan daude Tolosan.

ZER LORTU NAHI DA?

· 250 herritarren aktibazioa
· 1000 kg elikagai freskoak
· 100 familieen elikadura egokia bermatzearen alde egitea
· Tolosaldean dagoen Pobrezia eta kalteberatasuna bistaratzea
· Tolosaldeko herritarren bizikidetza indartzea

NOLA LORTU NAHI DA?

· Bonu-salmentak: 5€ eta 10 €ko bonuak (Etxola bat jarriko da astean zehar).
· Herriko saltokietan "Jarri beste bat!" kanpaina abian jarriz.
· Tolosaldeko ekoizleen produktuen ekarpenak jasoaz.
· Ikastetxeetan kanpainaren berri emanez (Pobreziaren haur eta gazteen begiradak).
· Haurrentzat elikadura osasuntsu tailerra eginez.
· Tolosako azokaren soberakinak berrerabiliz.
· Azoka egunean herritarrak elikagaiak bertan utziz.
· Herritarren aktibazio zabala eginez.

NOLA EGINGO DA?

Ekainak 10:
Azoka antolatuko da Triangulo plazan.

Ordutegia:
09:00etatik - 14.30etara.

Ekintzak:
· Elikagai freskoak bildu, sailkatu eta antolatu.(09:00-12:00).
· Pobreziaren haur-gazteen begiradak (Marrazkien- esaldien erakusketa).
· Kaleko animazioa.
· Haurrentzat elikadura osasuntsuaren tailerra .
· Informazio gunea: Zutani Elkartea eta Lurtaro kooperatiba.
· Produktuen banaketa eta pintxo solidarioen eskaintza.
· Errezeta txokoa.

kutxa FUNDAZIOA
Arantzazulab GIZARTE BERRIKUNTZA SOCIAL INNOVATION
ETORKIZUNA ORAIN Es futuro
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
Cofinanciado por la Unión Europea
2030 Agenda Euskadiren konpromisoa 2030
TOLOSA
ZUTANI Elkartasuna elikatuz